

HAUR HEZKUNTZAKO GELETAN GATAZKAK ERALDATU

Gure bizitzako etapa guztietan, pertsonak garen neurrian, gatazka ezberdinekin egiten dugu topo, gure garapen pertsonalaren arabera, bizi dugun egoeren arabera, e.a.

0-6 urte bitarteko haurrekin ere gauza berdina gertatzen da; Haur hezkuntzarako material kurrikularen bilduman, kurrikulumeko zeharkako gaiak 1⁽¹⁾,-ean jasotzen diren bezala, hurrek, oinarrizko gatazka mota hauek dituzte,

- 1- Haurrak beste haurrekin gatazka bat dauka: kasu honetan gure zeregin nagusia, beraien arteko gatazka beraien artean irtenbidea era autonomoan bilatzen laguntzea, erraztea da.
- 2- Egoera gatazkatsua gurekiko denean: Bigarren kasu honetan, egoeraren barruan gaudenez, bitartekari rola era bikoitzean hartu beharko dugu: parte garen neurrian eta bestalde, dagoeneko aipatu dugu bitartekari rolean, bertan gatazkaren beste aldeko haurren heziketaren arduradun helduak gara

Bi kasuetan elkarrizketa lantzea da egokiena gatazkaren eraldaketa prozesuan eta alde zuzenetik beharrezkoak diren jarrerak eta trebetasunak lantzeko

Haurren gatazkek, haurtzaroko hiru beharrei erantzuten diete:

1. Helduen atentzio eta estimua lortu.
2. Beste haurrekin harreman egokiak lortu.
3. Beste heldu eta haurrekiko boterea esperimintatu/bizitu.

Ikuspegi honetatik *prozedura* hau proposatzen da gatazkek eraldatzeko. Oso haur txikiengandik ere bere oinarrizko elementuak erabil daitezke. Oso eskematikoki, 5 pausu hauek biltzen ditu:

1. Gelditu eta lasaitu
2. Gatazka identifikatu (zer gertatu da?)
3. Irtenbideak sortu. (Zer egin dezakegu?)
4. Irtenbideak ebaluatu. (Zer erabakitzen dugu?)
5. Aurrera eramateko bidea zehaztu (Nola egingo dugu?)

Haurren arteko gatazketan gure papera autonomiaren printzipioan oinarrituko da: Beraien artean bideratu dezaketen oro, errespetatu egin behar dugu. Irakaslearen partehartzea bakarrik eskatzen denean edo min fisiko edo psikikoa egin daitekeen kasuetan izango da.

Bitartekari izan gabe ere, hurrei beren gatazkak eraldatzen lagun diezaiekegu jarraian azaldutako era zuzen hau bideratuaz:

- Entzunaz: beren arazoa arretaz entzuten dien pertsona bat aurkitu ezker, kasu askotan, arazo ugariri irtenbidea ematen zaio.
- Esaldi erabilgarriak erakutsiz: “Aski da, egiten duzuna ez dut atsegin” edo “ez dut nahi” eta orokorrean, era asertibo bidez, beren beharrak eta nahiak besteei azaltzen erakutsi diezaiekegu.
- Ziurtasuna emanez: babesa emanez eta beren arazoak garrantzitsuak direnez behar den neurrian arreta jarriaz.

Bitartekaritza lanean ondorengo irizpideak jarraitzea garrantzitsua izango da:

1. Guztiek irabaziko duten irtenbideak bilatzera animatu.
2. Haurren ideiak epaitzea edo kritikatzeko ekidin
3. Haurren ideietan oinarritu
4. Arazoa maiz gogoratu.
5. Haurren ideiak bere horretan jaso, arbela bat izango bagina bezala. Bertan, esandako guztia bildurik geratuko litzateke.
6. Arazoan zentratu, eta ez haurren espresio gramatikala zuzendu.

(1) *Colección de Materiales Curriculares para la Educación Infantil. Temas Transversales del Currículum, 1. E. para la Salud, Cultura Andaluza, Educar para la Vida en Sociedad, E. Vial de la red Telemática de la Junta de Andalucía.*